

DEKRETUA Zk. 1862/24

Merkataritza-, ostalaritza- eta zerbitzu-sektorearen lehiakortasuna hobetzeko eta sustatzeko diru-laguntzen 2024ko deialdia onartzeko agindu du Merkataritza Arloko delegatuak.

AURREKARIAK.- Erandioko Udalaren diru-laguntzak arautzeko ordenantzarekin, Administrazio honetan aplikatuko diren marko juridikoa eta irizpideak ezarri nahi izan ditu Udalak.

AURREKARIAK.- Udal kontu-hartzaitzaren izapidean, 2024ko uztailaren 12koan, dirulaguntza deialdi honetarako aurrekontu-kreditu nahikoa dagoela adierazten da (RC-220240006898)

OINARRIAK.- Erandioko Udalaren dirulaguntzak ematea arautzen duen Ordenantza Orokorra Herriarren Lan-Arloa, 2023ko abenduaren 21eko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratua (243. zenb.) eta 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzko Orokorra.

OINARRIAK.- Ondorengo legeetan xedatutakoa: 7/85 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubideko Oinarriak Arautzen dituen; 781/86 Errege Dekretua, apirilaren 18koa; eta 4/99 Legea (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legea aldatzen duena).

Ondokoa onestea **ERABAKI** du:

MERKATARITZA-, OSTALARITZA- ETA ZERBITZU-SEKTOREAREN LEHIAKORTASUNA HOBETZEKO ETA SUSTATZEKO DIRU LAGUNTZAK ARAUTZEKO OINARRIAK ETA 2024KO DEIALDIA

LEHENGOA. ATARIKOA.-

Erandioko Udalak garrantzi handiko lana egin du bertako merkataritza-, ostalaritza- eta zerbitzu-sektorea bultzatzeko eta sustatzeko, Merkataritza Sailaren bitartez.

Oraingoan, urrats bat gehiago eman nahi du Erandion diharduen merkataritza-, ostalaritza- eta zerbitzu-sektoreari zuzendutako udal-politika eta -zerbitzuen esparruan, lehiakortasunari lotutako hainbat beharrian aurkitu baitzituen 2017ko Erandioko Merkataritza Biziberritzeko Plan Berezian (PERCO). Horregatik guztiagatik, Udalak sektore horien lehiakortasuna eta berrikuntza hobetzeko diru-laguntzak arautzeko oinarri hauek abiarazi ditu, sektore horien dinamizazioa eta sostengarritasuna bultzatzeko.

BIGARRENA. ARAUDIA.-

Honako hauetan xedatutakoa bete da:

-. 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa (2003ko azaroaren 18ko BOE)

-. 887/2006 Errege Dekretua, ekainaren 21ekoa, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorren araudia onartzen duena (2016ko uztailaren 25eko BOE).

HIRUGARRENA. HELBURUA/XEDEA.-

Oinarri arautzaile hauen helburua da merkataritza-, ostalaritza- eta zerbitzu-sektoreko mikroenpresei laguntza ekonomikoa ematea, beren lehiakortasuna hobetzeko.

Ondorioz, oinarri hauen xedea da itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak ematea, honako jardunbide honi zuzenduta: “Merkataritza-, ostalaritza- eta zerbitzu-sektoreko mikroenpresen lehiakortasuna hobetzeko eta sustatzeko laguntzak”, merkataritza-, ostalaritza- eta zerbitzu-sektoreko Erandioko mikroenpresei zuzenduak, teknologia-ekipamenduak modernizatu, eraberritu, berritu eta hobetzeko inbertsioak egiteko, enpresak modu adimendunean kudeatze aldera.

LAUGARRENA. ONURADUNAK ETA BALDINTZAK.-

Oinarri hauetan araututako laguntzak (“Merkataritza-, ostalaritza- eta zerbitzu-sektoreko mikroenpresen lehiakortasuna hobetzeko eta sustatzeko laguntzak”) honakoek jaso ahalko dituzte: pertsona fisiko edo juridikoak, legez sortutakoak, Erandioko eraikinetako lokal finkoetako establezimenduetan jarduera dutenak, eta merkataritza-, ostalaritza- eta zerbitzu-sektorean dihardutenak. Horrez gain, honako baldintza hauek ere bete beharko dituzte:

- Mikroenpresak izatea.

Oinarri hauei dagokionez, mikroenpresak dira 10 pertsona baino gutxiagoko enpresak, urteko 2 milioi eurotik gorako negozio-bolumena edo balantze orokorra ez dutenak (2014ko ekainaren 17ko BATZORDEAREN 651/2014 (EB) ERREGELAMENDUAREN 1. eranskinaren 2.3 artikuluan zehaztutako definizioaren arabera).

- Irekitzeko lizentzia edo jardueraren aurretiazko jakinarazpena behar bezala eginda edukitzea.

- Administrazio Publikoekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak eta beste betebeharrak egunean edukitzea. Erandioko Udalarekiko zerga-betebeharren egoera Merkataritza arloak berak egiaztatuko du.

Honako hauek ezingo dute oinarri hauetan araututako diru-laguntzarik jaso:

- Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren (azaroaren 17ko 38/2003) 13. artikuluan zehaztutako kasuetakoren batean dauden enpresak edo erakunde eskatzaileak.

- Irabazi asmorik gabeko elkarte eta entitateak, Administrazio Publiko, sozietate publiko eta horiei lotutako edo horien mendeko entitateak, eta zuzenbide publiko bidez sortu edo zuzendutako enpresak.

Onuradunek laguntza-programan parte hartzen duten aldi osoan bete beharko dituzte oinarri hauetan araututako baldintzak.

BOSGARRENA. DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN EKINTZAK ETA GASTUAK.-

Ekipamendu teknologikoak modernizatu, eraberritu, berritu eta hobetzeko inbertsioak bultzatuko dira, merkataritza-, ostalaritza- eta zerbitzu-sektoreko Erandioko mikroenpresek kudeaketa adimenduna izatearren.

Eskatzaile bakoitzak eskaera bakarra egin dezake.

Inbertsioak diruz laguntzeko modukoak izateko, eskatzaile bakoitzeko 200 euroko onartutako inbertsioak izan beharko dira, gutxienez.

Diruz lagun daitezkeen gastutzat hartuko dira honako inbertsio hauek, baldin eta udalerrian egiten edo garatzen duen jarduerarekin lotura zuzena badute:

- a) Ekipo eta programa informatikoak, eta horien aplikazio eta osagarriak, enpresa-jardueraren garapenarekin lotura zuzena dutenak, baldin eta jardueraren kudeaketan barneratuta badaude.
- b) Saltokietako terminalak, erregistratzaileak edo antzekoak, kode-irakurgailuak eta etiketa-sistemak.
- c) Web-orriak edo web-inguruak garatzea, betiere, online salmenta baimenduta badago, eta web horiek hobetzeko ekintzak egitea edo online salmentarako beste gune batzuetara esportatzea.
- d) Enpresa-jardueraren kudeaketan IKTak ezartzeko zerbitzu profesionalen aholkularitza-zerbitzuen ordainsariak.

Edonola ere, helburu diren aktiboak edo laguntzeko proiektuak zuzenean egon beharko dira jarduerarekin lotuta, eta enpresaren ekipamendu teknologikoak berriztatu, eraberritu, berritu eta modernizatzeko izango dira, enpresa modu adimendunean kudeatze aldera.

Hirugarrenei laga gabeko elementu berrietan egindako inbertsioak izango dira, kontraprestaziodunak ala ez, eta enpresa eskatzaileak berak egin edo komertzializatu ez dituenak.

Ez dira diruz lagunduko garraio-gastuak, aseguruak, administrazio-baimenek eragindako tasak, ez eta BEZa, zerga edo tributuen ordainketa ere.

Mantentze-lan eta eguneratze gastuei dagokienez, soilik onartuko dira kudeaketa eta fakturazio softwarearekin erlazionatuak eta online salmentarekin erlazionatuak, eta jarduera horiek behar den moduan justifikatu beharko dira.

Ez da inola ere leasing edo renting sistemaren bidez eskuratutako ekipamendurik diruz lagunduko.

SEIGARRENA. AURREKONTU-ZUZKIDURA.-

Deialdi honetarako (2024ko ekitaldia) gehienez hamabost mila (15.000,00) euroko zuzkidura dago, 2024ko udal-aurrekontuko 31 4314 47112 diru-partidaren kargura.

ZAZPIGARRENA. DIRUZ LAGUN DAITEKEEN ZENBATEKOA.-

Diruz lagun daitekeen inbertsioa guztizkoaren % 35 izango da.

Erabilgarri dagoen kontu-saila ez baldin bada oniritzia jaso duten eskaera guztiei erantzuteko adinakoa, diru-laguntzen portzentaje hori eskatzaile guztiei jaitsiko zaie, proportzionalki.

Eskatzaile bakoitzak gehienez 1.000,00 euroko diru-laguntza jaso dezake.

Diru-laguntza kalkulatzeko, kontuan hartuko da inbertsioen erosketa-balio garbia, hau da, balio erantsiaren gaineko zerga kenduta fakturatzen den zenbatekoa.

Soilik diruz laguntzeko moduko aktiboak argi eta garbi identifikatuta dituzten fakturak onartuko dira, betiere 50 edo 50 eurotik gorako zenbatekoa badute, BEZa kanpo.

ZORTZIGARRENA. DIRU-LAGUNTZA JASOTZEKO ALDIA.-

Inbertsioak 2023ko azaroaren 1etik 2024ko urriaren 31era bitartean egindakoak izan behar dira, eta horiei dagozkien fakturak eta abonauk ere data horien artekoak izan beharko dira, biak barne.

BEDERATZIGARRENA. ESKAERAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA.-

Eskabidea Erandioko Udaleko Alkateari zuzendu behar zaio. Erandioko Udalaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan jasotakoaren arabera.

Eskaerak aurkezteko epea oinarri hauek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hasiko da, eta dagokion urteko urriaren 31ean amaitu. Ez dute inola ere laguntzarik jasoko diruz lagun daitezkeen ekintzak gauzatzeko epez kanpo egindako jarduketek, ez eta eskaerak aurkezteko epez kanpo aurkeztutako eskabideak ere.

Eskaera-orriko baldintza guztiak ez badaude behar bezala beteta, edo ez badute beharrezkoa den dokumentazioa erantsi, erakunde eskatzaileari eskaera zuzendu edo behar diren agiriak aurkez ditzan eskatuko zaio, eta hamar eguneko epea izango du horiek ekartzeko. Horrela egin ezean, eskaera atzera botako da, eta eskaera horren inguruko erabakia emango da beren-beregi, bai eta jakinarazi ere.

Enpresa edo erakunde interesatuek eskaera aurkezteak berekin dakar oinarriak oso-osorik onartzea.

Erabakia bi hilabeteen buruan emango da, eskaerak aurkezteko epea amaitu eta biharamunetik hasita.

HAMARGARRENA. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

1- Enpresa eskatzaileek udaleko diru-laguntza eskatzeko orria eta beste formulario batzuk bete beharko dituzte, www.erandio.eus webgunean eskuragarri, Diru-laguntzak atalean, besteak beste, honako hauek:

a. Laguntzaren erakunde onuraduna izateari dagokionez erantzukizunpeko adierazpena eta behar bezala sinatuta:

- Mikroenpresak izatea.

Oinarri hauei dagokionez, mikroenpresak dira 10 pertsona baino gutxiagoko enpresak, urteko 2 milioi eurotik gorako negozio-bolumena edo balantze orokorra ez dutenak (2014ko ekainaren 17ko BATZORDEAREN 651/2014 (EB) ERREGELAMENDUAREN 1. eranskinaren 2.3 artikuluan zehaztutako definizioaren arabera).

- Irekitzeko lizentzia edo jardueraren aurretiazko jakinarazpena behar bezala eginda edukitzea.

- Ez dagoela bateraezintasun- eta debeku-arrazoirik entitatea eta ordezkaria diru-laguntzen onuradun izateko, Diru Laguntzei buruzko Legeak (azaroaren 17ko 38/2003) 13. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

b.- Finantziazioaren inguruko erantzukizunpeko adierazpena, eta behar bezala sinatuta, honakoa adierazten duena:

-Ez duela eskatu edo jaso Erandioko Udalak emandako diru laguntzarekin bateraezina den inolako funtsik.

- Erandioko Udalak emandako diru-laguntzarekin bateragarri diren funtsak edo laguntzak jaso edo eskatu dituela (erakundea eta helburua zehaztu behar dira).

Eskaeran jasotako datuen egiazkotasuna espedientearen tramitazio-aldi guztian zehar egiaztatuta ahalko da.

Goian aipatutako erantzukizunpeko adierazpenean agertzen den daturen bat faltsua izanez gero, administrazio- zein zigor-araubidearen arabera dagokion zehapena jasoko du.

2.- Enpresa eskatzaileek, eskaerarekin batera, honako agiriak aurkeztu beharko dituzte:

- a) Eskatzailea pertsona fisikoa bada: Nortasun agiriaren fotokopia
- b) Pertsona juridikoa bada: Identifikazio fiskalaren txartelaren fotokopia, enpresa sortu eta ondoren jasandako aldaketen eskriturak, legezko ordezkariaren NANA eta ordezkaritza-boterea.
- c) Jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta eta baja emandako ziurtagiria.
- d) Gizarte Segurantzarekiko eta Ogasuneko betebeharrak egunean egotearen egiaztatagiria.
- e) Diruz lagunduko diren jarduketan behin betiko faktura original edo erkatutako fotokopiak eta ordainagiria, transferentzia, bankuaren egiaztatagiri edo ordain-laburpena, ordaindu egin den froga gisa.

HAMAIKAGARRENA. PROZEDURA, INSTRUKZIOA ETA EBAZPENA.-

Erandioko Udaleko Merkataritza arloa izango da oinarri espezifiko hauetan jasotako dirulaguntzak ematea bideratuko duen organoa

Prozedura ebazteko organo eskumenduna Alkatetza izango da.

HAMABIGARRENA. ERREKURTSOAK.-

Ebazpen horrek amaiera emango dio administrazio-bideari. Hala ere, horren aurka berraztertzeke errekurtsua ezarri ahal izango da berau eman zuen organo berberaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpenaren jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri ahal izango da auzitegi eskudunean, 2 hilabeteko epean, ebazpenaren jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

HAMAHIRUGARRENA. DIRU-LAGUNTZA ORDAINTZEA.-

1-Dirulaguntza eman zaiola adierazten duen jakinarazpena jaso eta ondorengo hamar egun baliodunetan onuradunak ez badio beren beregi eta idatziz uko egiten dirulaguntzari, onartu egin duela ulertuko da.

Dirulaguntza emango dela jakinarazi ondoren, 10 egun igaro eta berehala, Udalak bakoitzari dagokion zenbatekoaren ordainketa izapidetuko du

2-Oro har, eskaera bakoitzeko ordainketa bakarrean ordainduko da diru-laguntza.

HAMALAU GARRENA. BESTE LAGUNTZA EDO DIRU-LAGUNTZA BATZUEKIN ELKARTZEA.-

Diru-laguntzak bateragarriak izango dira beste administrazioek edo erakunde publiko edo pribatuak kontzeptu eta xede bererako emandako beste edozein diru-laguntzarekin. Dena den, diru-laguntza guztien baturak ezingo du gainditu oinarri hauen bidez diruz lagundutako inbertsio-proiektuaren kostua. Hori gertatuz gero, emandako dirulaguntza gutxitzeari ekingo zaio dirulaguntza jaso duen ekintzaren kostua arte. Ekintzaren gehiegizko finantzaketa gertatuz gero eta dirua atzera itzuli behar bat baino gehiago izanez gero, Erandioko Udalak egindako ordainketa osoaren arabera dagokion diru kopurua itzuli beharko du erakunde onuradunak.

HAMABOSGARRENA. DIRU-LAGUNTZA ALDATZEA

Diru-laguntzak emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatzeak berekin dakar emandako diru-laguntza ere aldatzea, betiere berau emateko ezarritako baldintzak babesten badira.

HAMASEIGARRENA. ERAKUNDE ONURADUNEN BETEBEHARRAK.-

- Erandioko Udalak egoki irizten dituen egiaztapen-jarduketetarako prest agertzea, eta diruz lagundutako proiektuari buruz eskatzen zaion informazio edo dokumentazioa aurkeztea.
- Erandioko Udalari berri ematea diru-laguntza emateko aintzat hartutako edozein egoera aldatuz gero.
- Erandioko Udalari behar adina informazio eta dokumentazio osagarri ematea, diru-laguntzaren eskaera ulertu eta ebaluatu dezan.
- Deialdi honen ostean, Udalak diruz lagunduko dituen gastu berberetarako beste erakunde publiko edo pribatu batek beste laguntza edo diru-laguntzarik eman badio, Erandioko Udalari jakinaraztea. Jakinarazpena idatziz egin beharko da, horren berri izan eta hamar eguneko epean.
- Dirua itzultzea, baldin eta ez bada betetzen honako deialdi honetan ezarritakoa.
- Jasotako diruaren inguruko ziurtagiri eta fakturak gordetzea, agiri elektronikoak barne, gutxienez 4 urtez, diruz lagundutako jardueraren azken ziurtagiria jaso eta biharamunetik hasita.

HAMAZAZPIGARRENA. OINARRIAK EZ BETETZEA, DIRUA ITZULTZEA ETA ZEHAPEN-ARAUDIA

Enpresak betebeharren bat betetzen ez badu, diru-laguntzaren eskatzaileari egotziko zaio; diru-laguntzaren kopurua modu proportzionalen jaitziko zaio edo, hala badagokio, jasotako zenbatekoa eta legez dagozkion interesak itzuli beharko ditu.

Ondoren adierazitako kasuetako bat gertatuz gero, eskatzaileak itzuli egingo ditu jasotako diru-kopurua eta diru-laguntza jaso denetik izandako berandutze-zergari dagozkion kopuruak:

- Diru-laguntza jasotzea, eskatutako baldintzak bete gabe.
- Diruz lagundutako jardueraren xedea ez gauzatzea.
- Oinarri hauetan edo diru-laguntza emateari buruzko ebazpenean ezarritako beste edozein baldintza ez betetzea.

Alkatetza-Lehendakaritzak adostuko du Dirua itzultzeko betebeharra, erakunde onuradunari entzun ostean.

HAMAZORTZIGARRENA. ORDEZKO ARAUBIDE OSAGARRIA.-

Oinarri hauetan zehazten ez diren kasuetan honako lege hauek aplikatuko dira: 2003/38 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa, eta horren garapenerako araudia; 2015/39 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio publikoen administrazio prozedura erkideari buruzkoa; eta 2015/40 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa.

HEMEREITZAGARRENA. DATU PERTSONALEN BABESA.-

Diru-laguntza jasotzeko eskaera-orria aurkeztean, erakunde eskatzaileak oniritzia eman eta aitortzen du deialdian eskatutako baldintzak betetzen eta termino guztiak osorik onartzen dituela.

Horrez gain, jakinarazten du eskabidean jasotako datu pertsonalak bere baimenpean hartu direla, eta onartu egiten duela datuok automatizatu eta Udal honek behar bezala baimendutako fitxategietan sartzea. Horrez gain, baimena ematen du datuok udal kudeaketarako soilik erabiltzeko, eta beste Herri Administrazio eta Erakunde batzuei laga edo komunikatzeko, honako lege hauetan agertutako kasuetan: 1999/15 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Datu Pertsonalak Babestekoa; 1720/2007 Errege Dekretua, abenduaren 21ekoa, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa garatzen duen Erregelamendua onartzen duena.

Interesdunek datuak ikusi, zuzendu, ezabatu eta horiei aurka egiteko eskubidea erabili ahal izango dute; horretarako, idatzi bat aurkeztu beharko dute Erandioko Udalean.

HOGEGARRENA.- Dekretua ondoren adieraziko direnei jakinaraztea: Ekonomia Sustapena, Tokiko Garapena eta Merkataritza, eta Kontuhartzailletza sailei. Era berean, Idazkaritza sailari ere jakinaraziko zaio, kontu hartu eta alkateak zein eskuordetza duten korporazioko kideek emandako Ebazpenen Liburuan jasota gera dadin. Era berean, deialdi honi hedapen izateko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, udaleko web orrian eta iragarki taulan argitaratu beharko da.

Alkateak hala dekretatu eta izenpetu du.

Erandio, 2024ko irailaren 10ea

(Digitalki sinatua)

(Digitalki sinatua)

KONTU HARTU DUT

Martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren
3.2 e) artikulua betez

Alkatea
Aitziber Oliban Gutierrez

Behin-behineko idazkaria
Javier Basante Otegi